

## **ABANDONATUTAKO ESTAZIOAREN KONDAIRA**

Elene Aizpurua Albizu

*Azpeitia*

2000. urteko otsailaren 1ean, Alex izeneko mutil bati argazki-kamera bat oparitu zioten 17 urte betetzen zituelako. Alex mutil alai eta dibertigarria zen, ile marroia zuen eta altua zen. Mutilak, argazki-kamera estreinatzeko gogo handia zuen, eta Brinkolako estaziora joan zen argazki batzuk ateratzera. Bere familiakoek kontuz ibiltzeko abisatu zioten trenarekin, baina Alexek, pozaren pozaz, ez zuen kasu handirik egin. Argazkiak ateratzen ari zen bitarte, irristatu eta trenbidera erori zen. Alexen zoritxarrerako, tren bat etorri zen, eta harrapatu egin zuen. Ordunik aurrera, estazioa itxi egin zen.

Urteak pasatu ziren, eta istorio hau kondaira bihurtu eta inguruko herrietara zabaldu zen. Kondairak esaten du, norbait Brinkolako estaziora gerturatzen ausartzen bada, Alexen espirituak argazki bat atera eta desagertu egingo dela. Istorio hau umeak estaziora ez gerturatzeko erabiltzen zen askotan, edo beldurrezko istorioak kontatzeko lagunen artean.

Baina jende askok ez zekien kondaira hau egia zela, eta urteetan zehar jendea desagertu egiten zela.

2005eko otsailaren lein Gemmak bizia aldatuko zion gutun bat jaso zuen. “Zure aita gerran hil da”. Bihotza 505 zatitan apurtu zitzaion hau irakurritakoan. Bere aita militarra zen, eta orain dela 5 urte joan zen gerrara. Ama, Txinara joan zen lanera Gemmak 16 urte zituela, eta orain Gemmak 17 urte zituen, eta bakarrik bizi zen.

Gemmak soineko beltz bat jantzi, eta kalera irten zen. Goizeko hirurak ziren, beraz ilun-iluna zegoen. Bere ilea eguzki bat bezain horia zen, baina iluntasunean marroia ikusten zen. Begiak malkoz beteta korrika zihoala, erori egin zen. Hankan min handia hartu zuen, eta ezin zuen oinez joan. Orduan estazio bat ikusi zuen. Estaziora sartzea bururatu zitzaion, zerbaiten bila. Zizara bat bezala arrastaka, eserleku bat bilatu zuen, eta eseri egin zen.

Negar batean, zer egin pentsatzen ari zela, argazki-kamera baten soinua entzun zen. Gemma, harrituta, zutik jarri zen, eta herrenka estazioko etxe txikira sartu zen. Bere bihotza 1 Formulako auto baten abiaduran mugitzen ari zen, beldurrarengatik. Sartu zenean, dena zikin-zikina zegoen, eta ez zen ezer ere ikusten. Ikusi zuenean ez zegoela ezer, lasaitu egin zen. “Nire irudipena izango zen”, pentsatu zuen. Baina orduan, atea itxi egin zen. Gemmak oihu egin zuen. “Klik”. Argazki-kameraren soinua entzun zen berriro, eta Gemma desagertu egin zen.

2010eko otsailaren 1ean, Gemmaren desagerpenetik bost urtera, Mainer eta bere neska-laguna haserretu egin ziren. Bi neskak Mainerren etxean zeuden, baina haserretu egin ziren. Orduan, Jone (Mainerren neska-laguna) etxetik joan zen. Ordu batzuk beranduago, Joneren berrik ez zuen Mainerrek. Kezkaturik, Mainerrek bere telefonoko zenbakia paper batzuetan jarri, eta kaleetako paretetan itsatsi zituen. Paperetan, Joneren argazki bat zegoen, eta azpian “Ikusi al duzu neska hau? Ikusi baduzu, mesedez deitu zenbaki honetara” jartzen zuen, Mainerren telefono zenbakiaren ondoan.

Orduak pasatzen ziren, eta ez zuen inork deitzen. Mainer, kezkaturik, kalera irten zen, autoan sartu, eta inguruak begiratzera joan zen. Brinkolako estaziora joatea bururatu zitzaion, Joneri leku hori asko gustatzen ziolako. Estaziora iritsi zen, eta badaezpada ere, bertan paper bat jarri zuen, “Jone, etxera etorri” jartzen zuena. Argazki-kamera baten soinua entzun zuen, baina ez zion kasurik egin. Estaziotik irten baino segundo bat lehenago, “Klik” entzun zen, eta Mainer desagertu egin zen.

Dianak, 2015eko otsailaren 1ean, 50 urteko gizon bat hil zuen. Festa batera joan zen, eta dirua falta zitzaion. Gizon hura aberatsa zen, eta Dianari bere dirua lapurtzea bururatu zitzaion. Orduan, gizon horrekin hitz egitera joan zen, eta pozoitutako ardo kopa bat eman zion. Bakarrik ezin zuen egin, orduan, bere anaiaren laguntza behar zuen. Bere anaiak argiak itzali zituen

gizonak ardo trago bat hartu zuen unean. Gizona lurrera erori zenean, Dianak poltsikoan zituen 1.500 euroak lapurtu zizkion. Ondoren, Diana eta bere anaia Louis festatik atera ziren, eta Brinkolako estazioan gelditu ziren.

Diana, Louisen zain zegoela, soinuak entzuten hasi zen. Ez zen beldurtu, baina harrিতuta gelditu zen. Bere anaia iritsi zenean, soinuak handitu egin ziren, argazki-kamera baten soinua zen. Louis ere harrিতuta zegoen, ez zelako inor ibiltzen estazioan. Estaziotik ateratzen ari zirela, “Klik” entzun zen, eta Louis desagertu egin zen. Diana oihuka hasi zen. Beste “Klik” bat entzun zen, eta Diana ere desagertu egin zen.

Oliviak psikiatriko batetik ihes egin zuen. Espirituak ikusten zituela esaten zuen, eta bere familiak psikiatriko batera bidali zuen. Berak ihes egin zuen, eta orain ez zekien nora joan.

Brinkolako estaziora gerturatu zen. Sartu egin zen. Bertan lo egitea aukeratu zuen. Gauean, soinuak entzuten hasi zen. Olivia beldurtu egin zen, eta berak ikusten zituen espirituak zirela pentsatu zuen. Otoitz egiten hasi zen, psikiatrikotik harrapatu zuen gurutze batekin. Otoitz egitea bukatu zuenean, mutil bat ikusi zuen argazki-kamera batekin. Argazki bat atera zion, eta 2020ko otsailaren leian Olivia desagertu zen.

Hogei urtetan, sei pertsona desagertu dira, denak bost urtean behin, otsailaren leian, Brinkolako estazioan. Zein izango da Alexen hurrengo biktima? Nor izango da 2025eko otsailaren leian desagertuko dena?